


Lehorteak islama ureztatu zuen



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Arabiarraren penintsula, VI. mendean lehen erdialdea. Axum erresumako etiopiarrek penintsularen hegoaldea kontrolatzen zuten Himyar erresuma oparua konkistatu eta desagerrarazi zuten. Ordura arte Himyarrek Indiar Ozeanoaren eta Itsaso Gorriaren arteko merkataritza bideak kontrolatzen zituen, baina erresumaren aberastasunak bereziki nekazaritzan zuten oinarria, zehazki, ureztatze sistema zabal eta sofistikatua. Himyar erresumaren gainbeherak utzitako botere hutsunea ederki baliatuko zuen islamak hurrengo mendean.

Garai hartako kronikek VI. mende hasierako lehorteari egotzi zioten erresumaren bat-bateko krisia eta, berriki, Basileako unibertsitateko ikerlari talde batek egiaztatu du hipotesi hori. Himyarreko arrasto arkeologiko urriek erantzunik eman ezean, arrasto geologikoak aztertu dituzte, zehazki, Omango Al Hoota kobazuloko estalagmitak. Estalagmiten lodiera gainera erortzen zaien ur kantitatearen arabera denez eta denboraz estalagmiten uranio atomoak pixkanaka degradatzen direnez, ikerlari suitzarrek garai hartako prezipitazioen kronologia zehatza osatu ahal izan dute, *Science* aldizkarian azaldu berri dutenez.

520. urte inguruan hasita, lehorte bortitz eta luzeak jo zuen Himyar. Estatuaren



Mahoma Mekan, Korana predikatzen. Al-Biruni dokumentuaren XVII. mendeko kopia otomandarra.

oinarri zen nekazaritza kolapsatu zen eta goseak hartu zuen lurralde osoa. Erresuma boteretsuaren krisiak Arabia osoa desegonkortu zuen. Eta tribu nahiz erresuma txikiak elkarren artean borrokan hasi ziren; lehorteari gerra erantsi zitzaion. VII. mendean hasieran, arabiarren

egoera larria zen, eta orduan alternatiba itxaropentsua eskaini zien Mahomak. Islam sortu berriak fedea eta unitatea ekarri zien, baita penintsulatik kanpo lur emankorrak konkistatzeko aukera ere. Lehorteak eremua ezin hobeto prestatu zuen islamaren hazia ereiteko. ●



Museoaren definizio berria

ICOM Museoen Nazioarteko Kontseiluak museoaren definizio berria onartu du 26. Biltzar Nagusian, 18 hilabeteko eztabaida prozesuaren ondoren. "Museo bat irabazi asmorik gabeko erakunde iraunkorra da, gizartearen zerbitzura dagoena, eta ondare materiala eta immateriala iker-tzen, biltzen, kontserbatzen, interpretatzen eta erakusten du. Irekiak, irisgarriak eta inklusiboak, museoek aniztasuna eta iraunkortasuna sustatzen dituzte. Modu

etikoan, profesionalean eta komunitateen parte-hartzearekin funtzionatzen eta komunikatzen dira, hezkuntzarako, gozamenarako, hausnarketarako eta eza-gutzak trukatzeko askotariko esperientziak eskainiz". Lehenengoz jasotzen ditu irisgarritasuna edota iraunkortasuna, baina eztabaidatutako beste kontzeptu batzuk kanpoan utzi dituzte, hala nola deskolonizazioa edo ondarea jatorrirra itzultzea. ●